

DIRU SARRERAK

Gure helburu nagusienetako bat maskoten ongizatea bermatzea da, jabeak kanpoan dauden bitartean. Beraz, “*Etxekideak*” martxan jartzeko lortuko ditugun irabazi iturriak honako hauek izango dira:

Diru-laguntzen gaiari dagokionez, Zumaiaiko Udaleko gizarte zerbitzuetako arduradunarekin harremanetan jarri gara Zumaiaiko Udalak ahalbideratzen dituen aurkerak ezagutzeko. Ditugun baldintzak kontuan izanda, 800€ diru-laguntza lortzeko aukera izango genuke.

Bestalde, enpresa aurrera eramateko, Urola Kostako Mankomunitateak 3.000€ ematen dizkie 30 urtetik beherakoei, hasieran enpresa aurrera eraman ahal izateko. Beraz guk ere, diru-kopuru horrekin kontatuko genuke. Laguntza honi esker, proiektuari hasiera emateko egin beharreko inbertsioaren zati handi bat ordaindu ahal izango genuke.

Honako estekan topatu dugu Urola-Kostako Mankomunitateak eskaintzen duen laguntzaren inguruko informazioa:

[Ekintzaileek enpresa ideiak edo jarduera berriak garatzeko Lanbideko dirulaguntzen eskaera epea luzatu da - UrolaKosta - UrolaKosta](#)

Halaber, rifak saldu eta zozketako irabazleak, deskontu-bono garrantzitsu bat irabaziko du adibidez, 50 eurokoa hurrengo egonaldian aprobetxatu ahal izateko. Hala ere, geure eskutik duela urte batzuk hasi genituen aurrezkiak ere baditugu.

Amaitzeko, Udalek eta Urola Kostako elkarteek diru-sarrerak emango dizkigute, bai materiala erosteko, bai publizitaterako. Jarraian agertzen den taulan ikus ditzakegu zifrak:

DIRU-ITURRIA	KOPURUA
Udalaren diru-laguntza	800€
Urola Kostako diru-laguntza	3000€
Zozketa (hiruilero rifak: 2€ x 700 = 1400€)	1400€
DIRU-ITURRIAK GUZTIRA	5200€

Guztia ondo aztertu ondoren, gure **DIRU-SARRERAK 5200€** izango dira. Iruditzen zaigu diru sarrera hauek izanda nahikoa dela enpresa martxan mantendu dadin.